


JOSE LUIS ALVAREZ ENPARANTZA, 'TXILLARDEGI' HIZKUNTZALARI ETA IDAZLEA

Soziolinguistika matematikoa oinarritzat hartuta, «elebitasunaren gezurra» plazaratzea du helburu Txillardegik bere azken lanean. Bere teoriaren arabera, euskararen egoerak duen «minbizia handiena erdaldun elebakarrak dira». Gaztelaniaz argitaratutako teoriaren edukia hainbat aldiz plazaratu du euskaraz ere.

«Elebitasunaren gezurra salatzea da nire helburu nagusia lan honetan»



IMANOL OTEGI / ARGAZKI PRESS

Eider Goenaga | DONOSTIA

Euskal Soziolinguistika Institutua Sortzen-ekin argitaratu berri du Jose Luis Alvarez Enparantza Txillardegi-k bere azken lana: *Hacia una socio-lingüística matemática* (Soziolinguistika matematiko baterantz) izenburupean.

■ Zer dela-eta argitaratu duzu lan hau gaztelaniaz?

Batek baino gehiagok galdetu dit: «Joño, hi, erdaraz idazten hasi al haiz orain?». Ez dut inoiz libururik argitaratu erdaraz, Franco bizirik zela kaleratutako bat kenduta. Liburu honetan jasotzen dena ere euskaraz jada argitaratutakoa da; izan ere, orain arte ni *Bat* aldizkariaren zuzendari izan naiz, eta bertan hainbat artikulua ateratu ditut honen inguruan. Horrez gain, ba-

dat soziolinguistika matematikoari buruz liburu bat euskaraz.

Hala ere, ezin daiteke hau itzulpen gisa hartu. Argitaratutakoaren bilduma da, biribildu egin dut, hainbat gauza berri erantsiz. Baina, zergatik erdaraz, ezta? Batetik, euskaraz idazten den lan orori boikota egiten zaiolako, bai Madrildik eta baita abertzaleen aldetik ere; eta ez naiz lehenengoa hori

salatzen. Euskaraz argitaratzen denari, kasurik ez. Orduan, hau erdaraz egin dut, jende hori enteratzen ez delako.

Bestetik, liburua kanpora atera eta itzultzeko asmoa dugu. Katalanez atera, Irlandatik ere interesa dutela adierazi digute... eta horiei guztiei ezin zaié euskaraz eman. Izan ere, teoria unibertsala da eta, horregatik, azaltzen diren hizkuntzei A eta B deitzen zaié.

■ Lan honetan kaleratzen duzun teoriarekin, zer adierazi nahi duzu?

Elebitasunaren gezurra jarri nahi dut agerian; elebitasun orekatua eta horrelako termino guztiak erabateko gezurra dira. Hori bagenekien esperientziagatik, baina matematikoki ere hala gertatzen da. Ez dago orekarik, beti izaten da ordezkapen bat. Gero galdetuko dute: «Baina euskara hutsez jakin behar dugu?». Ez, nik ez dut esan nahi euskaraz bakarrik jakin behar dugunik; lehenengo euskara, eta gero nazioarteko hizkuntza. Baina zergatik espainola? Ez, ez; ingelesa. Gaztelania hizkuntza unibertsal samarra da, baina Europan gaude eta Europari begira ingelesa da nagusi, gaztelaniak ez du batere garrantzirik. Gero, gertutasunagatik, gaztelania edo frantsesa ikasi nahi duzula, ongi da. Jasone Zenoz eta Xabier Iraragorrik aipatzen dute esperientzia hori; euskara eta ingelesa batetik, eta gaztelania hirugarren hizkuntza gisa. Oso interesgarria da hori.

■ Liburuan diozu, besteak beste, hizkuntza bat ez dela galtzen dakitenek hitz egiten ez dutelako bakarrik; hitz egiteko jartzen diren traben erruz baizik.

Bai, baina nik Joxean Artze laguna dut, eta esan dudana ez doa haren kontra. Artzek, esaldi hori egin zuenean, nire ustez hemengo euskaltzaleak pixka bat pizteko egin zuen; eta zentzu handi batean arrazoi zuen, euskaldunon artean ere askotan erdaraz egiten baita. Baina mate-

matikoki aztertzen denean, fenomeno hori oso txikia da. Garrantzitsuagoa da egoera globala, eta egoera global horretan egin behar dira kalkuluak. Beraz, arazo nagusia ez da Artzek aipatzen zuena, baizik eta erdaldunek inposatzen digutela erdara; arazo nagusi eta bakarra erdaldun elebakarrak dira. Gu ez gara problema: hori bakarrik falta zaigu, azkenean euskaldunoi errua botatzea.

■ Eta nola eman dakioge buelta elebakar horiek inposatzen diguten egoerari?

Lehenik eta behin, hizkuntzaren ezagutza bultzatu behar da; hizkuntza ezagutzen ez bada, jai daukagu. Horregatik diot erdaldun elebakar horiek direla euskararen minbizia. Beraz, euskararen irakaskuntza bultzatu behar da, elebakarrak elebidun egiteko. Baina, horrez gain, gune euskaldunak sortu behar dira. Izan daiteke geografikoki, herri edo eskualde elebakarrak sortuz. Adibidez, Suitzan horrela gertatzen da, Flandriako herri batera bazoaz, derrigorrez hitz egin behar duzu flamenkoa.

Bestetik, gune funtzionalak ere sortu behar dira. Adibidez, unibertsitatea. Izan ere, unibertsitatean denok elkarrekin egotea suizidio bat da; bultzatu behar da euskaraz ibiliko den unibertsitate bat; izan daiteke bestearen ondoan, baina nahastu gabe. Sartu nahi diguten sasidemokrazia horretan, esaten zaigu denok batera egon behar dutela, baina hori gezurra da eta ez da inon gertatzen. Suitza, Finlandia eta bestelako herrialdeetan gune elebakarrak daude. Ez badugu gune elebakarrak sortzen, beti izango da erdaldun bat «mesedez» esan eta erdaraz hitz egiteko eskatuko diguna; eta horrela jai daukagu.

■ Soziolinguistika eta matematika uztartu dituzu lan honetan. Nola?

Bai, mila bider emandako adibidea jarriko dizut. Eman dezagun lau lagun daudela, A, B, C eta D; eta horietako hiru elebidunak

direla eta bestea elebakarra dela. Joaten zara bikoteak egiten, eta ikus dezakezu zein hizkuntza hitz egin daitekeen bakoitzean. Sei bikote posible dira, eta elementu bakar batek inposatzen du elkarrizketetako hiru hizkuntza batean egitea (%50). Bada, kontuan hartu, euskal gizartearen euskararen ezagutza %25ekoa bada —lautik bat—, aukerak ikaragarri murrizten dira. Hori orokortzen badugu, ariketa matematikoen bidez kalkulu errazak egin daitezke.

Beraz, argi eta garbi ikusten da elebakarrak inposatzen duela. Eta euskaldun elebakarrik ia ez dagoenez, inposatzen dutenak erdaldunak dira.

■ **Soziolinguistika matematikoaren teoria honetan hizkuntzarekiko leialtasuna aipatzen duzu aldagai gisa.**


Bai, arazoa matematikoki planteatzen denean faktore asko sartzen dira, eta faktore garrantzitsua da leialtasuna. Alegia, euskaldun elebidunak beren artean daudenean, eta posible dutenean euskaraz egitea, zein hizkuntza aukeratzen duten. Horri deitzen diot leialtasuna. Baina faktore gehiago ere badaude; jendearen harreman linguistikoak, kasu.

Adibidez, Altza inguruko Galtzarabordan jende gehiena erdaldun elebakarra da. Horiek beren artean nahasten badira, ez dute sortzen interferentziarik; alegia, erdaldunekin harremanak dituen erdaldun elebakar batek ez dio euskarari eragiten, baina euskaldunekin nahasten den erdaldun elebakar batek eragin handia du. Beraz, matematikoki behintzat irtenbidea zein izan daiteke? Erdaldun elebakar horiek zenbat eta gutxiago nahastu, are kalte linguistiko txikiagoa egingo dute.

■ **Baina nahasketa hori egina dago eta ezin da saihestu.**

Bai, nahasketa horri integrazio tasa deitzen diogu liburuan. Tasa hori baxua bada, orduan eta hobe hizkuntzarentzat. Horrek karga politiko handia du, baina horrela da. Horregatik diot gune euskaldunak sortzearena, bertara sartu nahi duenak euskara ikasteko beharra izango baitu. Ez dakit intuizioz den, edo soziolinguistika ikasi dutelako, baina leku gehienetan gune elebakarrak egiten dira, bestela jai dutela konturatu direlako edo. Hala ere, ikerketek frogatu dute erdaldun elebakarrek euskal munduan duten sarrerara oso txikia dela; gutxi batzuen eraginez

IMANOL OTEGI / ARGAZKI PRESS



ELEBAKARRAK

«Beti izango da erdaldun bat 'mesedez' erdaraz hitz egiteko eskatuko diguna»

INPOSAKETA

«Arazoa da lagun bat hona etorri eta inperioaren hizkuntza inposatu nahian ibiltzea»

linguistikoki asko nabaritzen den arren.

■ **Askotan esaten da errespetuz aldatzen dugula hizkuntza, elebakar bat dagoenean; baina gero errespetu horrek ez duela bueltarik.**

Atzo bertan irakurri nuen, errespetuaren lehen seinalea dela bertako hizkuntza errespetatzea. Suitzan hori gertatzen da, eta Belgikan. Suitzar bat Zurichetik Lausanara mugitzen bada, badaki alemanetik frantsesera pasatu behar duela. Ezin dezake esan «ni suitzarra naiz eta alemanez hitz egingo dut»; alferrik dabil, Lausanan frantsesez egin beharko duelako. Beraz, ezinbesteko printzipioa da, mugitzen denak ezin dezakeela bere hizkuntza inposatu. Pertsona bat Euskal Herrira etortzen bada, hizkuntza ikasteko prest badago eta bertan integratzen bada, ez dago arazorik. Arazoa sortzen da pertsona bat etorri eta inperioaren hizkuntza inposatu nahian ibiltzen denean.

■ **Zuk aipatutako lekuetan, baina, administrazioetan bestelako jarrera izango dute, noski. Bestela, begiratu Nafarroan gertatzen denari.** Nafarroan PP dago nagusi. Bost

axola zaie euskararekin zer gertatzen den, eta, gainera, Euskal Herria ez direla frogatu nahian, etengabe saiatzen dira ezberdintasunak nabarmentzen. Baina hori 1936ko gerraz geroztiko kontua da, aurretik inori ez baitzitzaien burutik pasatuko euskal probintzietatik banatzea. Gauza bera gertatzen da Balear uharteetan eta Valentzian ere; bertako gobernuetan PP dago, eta horiei katalana hitz egiten dutela esaten badiezu, segituan esango dizute beste hizkuntza bat dela, beraiena dialekto bat besterik ez den arren. Ezberdintasuna bizkaiera eta gipuzkeraren artekoa baino txikiagoa da.

■ **Ildo horretan, hainbatetan aipatu duzu euskara batuak gure hizkuntzaren iraupenerako izan duen garrantzia.**

Normalizazio prozesuan ezinbestekoa izan zen. Gerora, hainbat hizkuntzalarik eta teoriarik ere esan izan dute hizkuntzari corpus batasuna eman behar zaiola, normalizazioa lortu ahal izateko. Baina bere garaian, gu intuizioz hasi ginen, eta mirari bat izan da. Hasi ginenean ez ginen konturatzen zer egiten ari ginen, baina oso denbora epe laburrean finkatu dela esan behar da.

2002 KO
MAIATZAREN 12A
MAI 2002

Senperen

Hizkuntza herriaren hats

Herria

u

PO TRIS
ROU LARU